

E I B A R

Erakusketa xelebrea

Hara non eta taberna batean, Astelena izeneko tabernan hain zuzen, Eibarko zenbait* pintorek euren lanen erakusketa bat antolatatu dabe. Bertan ikusi ahal izango dozu, irakurle, Beorlegi, Paulino Larrañaga, Daniel Txopitea eta beste edozenbat* pintoreren kua droak.

Margolariek tabernara joan beharko, taberna ez da margolariengana joaten eta.

Arrate eguna Deban

Arrate egunean Deban meza entzun genduanok haserre bizian irten ginen. Ez euskuen, ba, meza erderaz eskaini! Noiz, eta Arrate egunean. Gainera, eibartarrek eta eibartarrentzat prestatuko meza zala.

Gero esango deuskue egosbera samarrak garela. Nahi geunke jakin nor zer dan.

«Juventud Deportiva Arrate»

Jesus Maria Eriz, «Juventud Deportiva Arrate»-ko zuzendaria, izendatu berria da. Zorionak berari eta elkarte horretan deporteari buruz saiatzen diren guztiei.

Eriz jauna, deportezale ezezik, gazteleraz idatzi ohi daben euskaldun horreetako bat dogu.

Heriotzea

Irailak 24 zituala, Joan Jakun Luzio Bengoa, Udaletxeko* txistulari taldearen zuzendarl eta musika bandako lehendakari ordezko.

Bere azken nahian 2.000 pezeta laga* ei zituan, bere elizkizunen ondoren, bandako lagunok txikito batzuk edan gengizan. Hil ondoren ere, lagunetaz pentsatu eban gure Luzio onak.

Berari geroarte mingotsa, eta senide eta ahaide guztiei dolumin saminena.

Irure

Ba dogu, bai, gure Inguruetan edozenbat* leku ikusgarri. Ez dogu, ez, urrun joan beharrik. Hara han, Maltzaga gainean, Irure deritxon baserri polita, eskudo eta guztikoa gainera. Toki argia eta baketsua. Azitain, Urko, Ixua, Uzartza, San Pedro, Arno, Itsasoa, Karakate, Plaentxia eta abar: guztiak bertatik ikusi daitekez.

Ordu erdi inguruko bidea dozu bertaraino Maltzagatik. Eta jan-edanerako ere ba dozu bertan leku ederra. Baserriko jan-edanak, baserriko sukaldea eta baserriko etxeakoandre maratza*. Non restaurant hobeagorik?

Autoz joan gura badozu ere, ez dozu bide galtzerik. Plaentxia baino kilometro pare bat lehenago dagoen eskuinaldeko bide bakarra. Aldapada* laburra, baina izugarritzko gorakada dauana. «Primeria» sartu barik, ezetz Igan*. Hona hemen uste gabeko postura*.